


# XXV. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA EDO AHALEGIN BATEN 25 UDABERRIAK

## Ereintza Elkarteko Eskulangintza Saila



### SARRERA

Orain dela 24 urte, 1979an, Ereintza Elkartek I. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka antolatu zuen Erreterian, modu honetan gertakari hauen sortzaile bihurtuz. Aurten beraz, lehenengo azoka haren 25. edizioa dugu, hasiera hartan inolaz ere pentsatzen ez genuen bilakera eta arrakasta lortu dituelarik.

Gogoeta prozesu baten ondorioz jaio zen Eskulangintza Azoka, hain zuzen ere trantsizioaren garai berri hartan, alderdi politikoen sorrera zela eta, kultur elkarteek bete behar zuten zereginari buruzkoa. Gogoeta horren emaitza, gauza berezi eta

esanguratsu bat egiteko asmoa izan zen; euskal kultura herrikoari benetako ekarpena ekarriko zion ekintza espezializatu bat, Musikaste edo Durangoko Liburu eta Diska Azokaren ereduari jarraituz.

Eta zergatik aukeratu eskulangintza? Eskulangintzaren gaia hartu izanaren arrazoia Erreterian nortasunean bertan aurkitu genuen; bertako kultura neurri handi batean desitxuratuta baitzegoen industrializazioaren ondoriozko biztanleriaren garapen azkarraren eraginez. Artisautzak aldiz, kulturaren sustairik sortzaileena eta herrikoiena laburbiltzen zuten.

Baina Ereintzaren asmoa folklorismo eta etnografiaren haraindi joatea zen. Artisautzak

gizarte moderno honetan bizirik iraun zezan, bere esparru propioa aurkitu behar zuen, oinarri ekonomikoak, laboralak eta komertzialak kontuan harturik.

Eta ahalegin horretan lehenengo 25 urteetako lana ospatu dugu aurten; horregatik, Azokaren beraren inguruan egitarau berezi eta zabal bat antolatzen saiatu gara.

## ESKULANGINTZAREN ETORKIZUNARI BURUZKO JARDUNALDIA

Aurtengo egitarau bereziaren lehenengo ekintza apirilaren 11an, ostirala, Reina Aretoan, egun osoan egindako "ESKULANGINTZAREN ETORKIZUNARI BURUZKO JARDUNALDIA" izan zen. Sektore honen garapenerako ekarpen teoriko bat beharrezkoa zela pentsaturik, antolatzaileok sektoreak dituen erroko arazoiei buruzko gogoeta sakona egin nahi izan dugu, eztabaidaren bitartez arlo honetan inplikaturik dauden alde guztietako jende espezializatua aurrez jarriz.

Jardunaldiaren egitaraua honela joan zen:

Goizeko 9:30etan Ereintza Elkartearen aurkezpena eta agintarien agurra, Errente-

riako Alkatea den Miguel Buen eta Foru Aldundiko Ekonomi Saileko Zuzendaria den José M<sup>a</sup> Aldanondo jaunen eskutik.

**TXOSTENAK.** Ondoren, Xabier Zabaleta kazetariaren gidaritzapean, txosten hauek aurkeztu ziren:

*"Iraganetik oraindirako ibilbidea. Eskulangintzaren azken 25 urteotan izan diren aldaketak"*, Antxon Agirre Sorondo antropologoak emana.

*"Eskulangintzan izan diren aldaketak eskaera berriei egokitzeko. Alderdi praktikoa eta ekonomikoak"*, Blanca Gómez de Segura artisauak eta Karmelo Urdangarin ekonomistak elkarren artean emana.

*"Merkaturatzearen hainbat alderdi"*. Txosten honetan hiru sektore ezberdinen ikuspuntuak aurkeztu ziren: Denda txikiak, Donostiako "Saski-Naski" dendako Pilar Aycart eta Bilboko "Basandere" dendako ordezkariaren eskutik; azalera handiak, Jaime Egaña, "Garbera" merkatalguneko zuzendariak emana; artisauen azokak, Bernart Vidal (Arbaso), Juanjo Ucar (Gabiltza) eta José Sellan (Lur) artisauak eskainia. Eta ondoren hiru hauen arteko mahai-ingurua goizeko saioa bukatzeko.

*"Artisauen Gizarte Segurantzaz"*, Pedro Uztarroz jaunak emana.





Mahai-ingurua “**Ondorioak**” gaiarekin hizlari eta partaide guztien artean, jardunaldiaren amaiera gisa.

50 bat lagunek hartu zuten parte Jardunaldi honetan eta emaitzak etorkizunean gauzatuko badira ere, bertan sortutako informazio guztia irizpide analitiko baten bidez aztertu behar dela pentsaten dugu. Eta hori profesional prospektikoen edo kontsultorien bidez bakarrik lor daitekela uste dugulako, hori bultzatzea litzateke Ereintza Elkarteko Eskulangintza Sailak artisautzari egun eskain diezaiokeen ekarpenik garrantzitsua.

### **ARTISAUEN KATALOGO OROKORRA 1979-2003**

Oarsoren orrialdeetan Katalogo honi buruzko artikulu berezi bat baldin badator ere, ez genuke aipatu gabe utzi nahi liburu hau 25. Azokaren borobiltze bat dela guretzat. Izan ere, argitalpen hau, dokumentu historiko izateaz gain, 25 urteetan Euskal Herriko eskulangintzaren alde egindako lanaren fruitua da batipat.

Beraz, Erreterian egiten den azoka emankor honen historia txikia bildu nahi izan da katalogo honetan, eta aldi berean bertan parte hartu duten artisauei guztien datu pertsonal eta komertzialak eguneratu dira. Orain arte artisauei buruz egindako libururik zabalena dela esan daiteke.


### **ARGAZKI-LEHIAKETA ETA ERAKUSKETA**

Urteurren honen ospakizun berezien artean Argazki Lehiaketa bat ere antolatu da Gipuzkoako Argazkigintza Elkartearen laguntzarekin. Lehiaketa hau afizionatu naiz profesionaleri zuzendua egon da eta honako hau izan da gaia: “Euskal Herriko esparru geografikoan kokatutako eskulangintzaren edozein ikuspegi. Artisaua, tailerra, lana, materialak, aplikazio arloak, objektuak”.

Hautatutako 55 argazkien artean, hiru sari eta Erreterian ateratako argazki onenarentzat akzesitu bat eman zaizkie honako partaideei: 1. saria: Javier Pedro Fernández, berangotarra, “Juan herrero” zeritzan argazkiarekin; 2. saria: Adolfo Vázquez, erreteriarra, “Manos I” argazkiarekin; 3. saria: Kike Eizmendi, erreteriarra, “Beiratea” argazkiarekin; akzesitu: Joaquin Vara, erreteriarra hau ere, “Bollillos” argazkiarekin. Material honekin guztiarekin eta azokaren 25 urteetako kartel guztiekin erakusketa bat antolatu zen apirilaren 28tik maiatzaren 4ra, Niessen Erakusketa Aretoan.

### **ERAKUSLEIHO LEHIAKETA**

Aurrekoen gai bera oinarritzat harturik, Erakusleho Lehiaketa bat ere antolatu da, kasu honetan Erreteriarako “Errenkoalde” Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu Elkartearen laguntzarekin. Lehiaketa hau Erren-



teriako merkataria guztiei zabaldu zaie eta hamairu dendak hartu dute parte. Hiru sari-dunak honako hauek izan dira: 1. saria: Biteri kaleko “El Viejo Almacén” altzaridenda; 2. saria: Biteri-txiki kaleko “Paula Gozotegia”; 3. saria: Biteri kaleko “Optica Arieta”.

Bi lehiaketa huen sariak Maiatzaren 3an, larunbata, eguadiako 12tan azoka-gunean bertan banatu ziren, antolatzaile eta laguntzaileen ordezkariak bertan zirelarik.

## XXV. ARTISAUEN AZOKA

Artisauen Azokak gure helburuen ardatz nagusi izaten jarraitzen du. Azoka bera da garrantzitsuena eta beste guztia hura osatzeko eta laguntzeko asmoarekin egiten da. Maiatzaren 1etik 4ra egin da eta azken urteotan bezalaxe Udal Pilotalekua izan du kokagune. Aurtengo Azoka osatzeko garaian, gai berezirik ez zegoenez gero, profesionaltasuna eta kalitatean gora joatea izan dira irizpide nagusiak, eta zentzu honetan, aurreko urteetan itzal berezia utzi duten artisauak berreskuratzeko ahalegin berezia egin da eta urtez urte saritutako stand onen artisauak bildu dira.

## ZABAL-UNEA

Azokaren zabalte ofiziala, maiatzaren leian, osteguna, goizeko 12etan egin zen.

Jone Idiazabalek Ereintzaren izenean ongi-eterria eman ondoren, Foru Aldundiko Ekonomi Saileko Diputatua den José Ramón Beloki jaunak hartu zuen hitza, eta bere ondoren, azoka zabalduz, Errenteriako Alkatea, Miguel Buen jaunak. Babesa eta laguntza ematen diguten entitateen ordezkariekin batera, hainbat zinegotzi eta komunikabideetako ordezkari ere bertan zeuden.

## ARTISAU PARTE-HARTZAILEAK, LANGINTZAK ETA GEOGRAFIA-JATORRIAK

Ohiko irizpideei jarraituz, hau da, kalitatea, aniztasuna, berrikuntzak eta geografia-oreka kontuan harturik, osatu da parte hartu duten artisauen zerrenda. Aurtengo 60 artisauen langintza eta geografia-jatorriak honela sailkatu dira:

**Zura:** Altzarigintza eta taila (4); Makilak eta landa tresnak (4); Jostailu eta torneatuak (2); Ontzigintza (1).

**Otargintza** (2)

**Buztina eta harria:** Buztingintza (2); Zeramika (4); Hargintza (1).

**Beira:** Beira tailatua edo dekoratua (2); Beira puztua (1); Beirateak eta “tiffanys” lanak (2).

**Oihalkiak:** Ehungintza eta alfonbrak (3); Jantzkiak (1); Seta margotua eta arto txirikordaketa (2).

**Larrua:** Pilotak (1); Zahatogintza (1); Larrugintza (2); Oinetakoak (1).

**Burdina eta metalak:** Burdinlantza (1); Bitxigintza (2); Berunezko irudigintza (1); Esmalte eta grabatuak (2).

**Papera eta kartoia:** Koadernaketa (2); Harri-kartoiaren eskulangintza (1).

**Musika-tresnak:** Harizko musika-tresnak (1); Haizezko musika-tresnak (2).

**Bestelakoak:** Oihalezko edo portzelanazko panpinak (2); Ohial margotua (1); Txotxongiloak (1); Lore idortuak (1); Txilar erratzak (1); Xaboiak (1).

**Elikadura:** Taloak (1); Erlazaintza (1); Konfiteritza (1); Edaribiziak (1).

Geografia-jatorriaren arabera berriz, Gipuzkoatik (26), Arabatik (6), Bizkaitik (7), Nafarroatik (17) eta Ipar Euskal Herritik (4) etorri dira. Hauetatik hamarren bat berriak, hau da, lehen aldiz Errenteriako Azokara etorritakoak. Artisauak eskainitako ekoizpen edo produktu motei dagokionez, berrikuntza nabarmenak ikusi dira, eta zerbait azpimarratzekotan aurtengo artisauen eta stand gehienen kalitate orokorra eta gaien aniztasuna azpimarratu behar dira.

Antolakuntzak sartutako berrikuntzen artean aipatzekoa da, halaber, lehen aldiz bisitarien artean egunero 60 euroko bi zoz-

keta egin direla, bertako produktuen erosketan gastatu ahal izateko.

## TXALANTA BATEN EGINTZA ETA URETARATZEA

Azokaren helburua jende aurrean gauza bitxiak eta erakargarriak erakustea izan da beti. Urtero ibili ohi gara zerbait bereziaren bila, eta lanbide zaharren artean (Errenteriarekin historikoki lotuta egon dena gainera), ontzigintza da horietako bat. Aurten, azkenik eta nolabait 25. Azoka borobilduz, antigaleko ontziak berregitera dedikatzen den Pasai Donibaneko Albaola elkarteak Xabier Agote ontzigileari esker lortu da asmo hori.

Baionako Aturri ibaian XIX. mendean erabiltzen zen "txalanta" baten berregintza osoa nola egiten den ikusteko aukera paregabea izan dugu lau egunetan. Gure itsasertzeko txalupa mota ezberdinen artean kokatzen da "txalanta" hau; ontzi laua da eta jatorrian hustutako enbor batetik dator, urtetako hobekuntzen bidez gaurko bilakarara heldu izan bada ere.

Eta lanaren ondoren derrigorrezkoa den bezala, maiatzaren 4an, arratsaldeko 7:30etan, itsasgorarekin batera, dantza eta musikaren artean, "Baiba" izenarekin bataiatutako txalanta berria ureratu zen Oiartzun ibaiko uretan, aspaldian gure herrian ikusten ez gunden ikuskizun batean.





## HOBEREN DEKORATUTAKO ERAKUSGUNEARENTZAKO SARIA

Orain dela bederatzirte Gipuzkoako Merkataritza Bazkondeak sortu zuen sari honek Azokan parte hartzen duten artisuen artean kalitate estetiko hobetzea bilatzen du, aldi berean bisitarien interesa suspertzeko beste elementu bat izanik. Oinarrietan jartzen duenez, "bere lehengaietan edo landutako produktuetan oinarrituta erakusgunea hobekien apainduta duenari" ematen zaio sari hau, Bazkondeak berak izendatutako epaimahai baten bitartez. Aurtengo kalitate orokorra handia izanik, deliberazio zail baten ondoren, Arrasatetik etorritako Felix Barcina ezpel-langilearentzat izan da saria. Honela 450 euroak eta oroimenezko Agiria, maiatzaren 2an, ostirala, artisau guztiekin egindako bazkari batean banatu zen, epaimahiaren ordezkari gisa Iñigo Zabaleta jauna izan zelarik.

## WEB-ORRIA

Joan den urtean martxan jarri zen web-orria eguneratu da, eta [www.ereintza.com](http://www.ereintza.com) orrian sartuta, parte-hartzaileen izena, harremanetarako telefonoa, garatzen duen artisautza eta abar eskaintzen zaio edonori. Horrez gainera azken albisteak, stand bakoitzaren kokapena, babesleen zerrenda, prentsa txostenak eta Azokarekin zerikusia duen guztia orri horretan aurki daiteke.

## BUKAERA GISA

Erreterian egin dugun XXV. Euskal Herriko Eskulangintza Azokaren egitaraua

aurrera eramatea posible egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu lehenik. 25. urteurren hau, antolatzaileentzat poztasun arrazoi garbia bada ere, ibilitako bidea, gaurko egoera eta batez ere etorkizunari buruzko gogoetarako une egokia zela ere pentsatzen genuen. Zentzu honetan, une honek aro baten amaiera eta berri baten hasiera izan behar duela uste dugu.

Garaiak aldatu dira; artisauak eta beren gaurko filosofiak antz txikia dute lehengoeekin. Egun, beharrezkoa ikusten dugu bai artisauak eta baita azokek ere, profesionaltasun gehiagorekin jokatzeko eta horrek dakartzan alderdi guztietako baldintza berriei erantzutea.

Artisautza bidegurutze batean dago eta, artisautzarekin batera, mundu horretan mugitzen garenok ere bai. Baina 25 urteetako historiak eta esperientziak, aurrera joateko bermea ematen digutela pentsatzen dugu. Erronka hori dugu aurrean; Erreterian orain arte eskulangintzaren erreferente guztiz beharrezkoa izan bada, aurrerantzean ere, betirako izango den kokagune eroso bat finkatuz eta martxan jarri daitezken proiektu berrien bitartez, horrela izaten jarraituko duela uste dugu.

Bukatzeko, eskerrak berriro ere. Lehenik eta behin, parte hartu duten artisau guztiei; baita etorritako ikuslegoari ere; hala nola beren lana eta ardura jarri duten komunikabide eta beste zenbait zerbitzuei; eta nola ez, etorritako agintariei, eta beren laguntza eta babesa urtero ematen diguten erakundeei: Gipuzkoako Foru Aldundiari, Erreterian Udalari eta Kutxaren Gizarte Ekintzari. Doakiela guztiei gure eskerrik beroena.